

BIBON, 2023KO AZARAREN 10EAN

+ INFO: [EHIN.SORORIDAD@GMAIL.COM](mailto:EHIN.SORORIDAD@GMAIL.COM)



# Ekin

diseño con sororidad

## DEIALDIAREN OINARRIAK

Euskal Herriko diseinu eta  
feminismo proiektuen  
aurkezpen laburrak

Antolatzaileak



**VIKITOKI**  
Elkarretanarako Laborategia  
Laboratorio de prácticas colaborativas


Babesleak





# 1. DEIALDIAREN HELBURUA

"E-kin, diseinua ahizpatasunez" proiektutik "Diseinua eta Feminismoa Euskal Herrian" saioan aurkeztu nahi diren proiektuak identifikatzeko deialdi hau irekitzen da. Saioa 2023ko azaroaren 18ko arratsaldean izango da, Bilboko Zabalgune Eraikinean. Diseinua eta Feminismoa lantzen ari diren proiektuak bilatzen dira, aurrerago deskribatuko diren topaketaren hausnarketa ildoetan.






## 2. TESTUINGURUA

"E-kin, diseinua ahizpatasunez" diseinuarekin eta arkitekturarekin lotutako emakumeen komunitate bat sortzeko proiektua da. Proiektu honen helburua arkitektura, hirigintza eta diseinuaren sektoreak eraldatzeko elkar-zaintza eta elkar-laguntza sareak osatzea da, parekideagoak eta feministagoak izan daitezzen.

2023an, "E-kin, diseinua ahizpatasunez" ekimenak Euskal Herriko diseinuaren sektorean dauden emakume profesionalentzat eta ikasleentzat zainketa eta sostengu gune osasuntsuak, seguruak, sororoak eta atsegingarriak sortzen jarraitzen du.

Jarduera garrantzitsuena "E-kin, diseinua ahizpatasunez" komunitatearen 3. topaketa izango da, azaroaren 18an. Bertan, komunitatea sortzen jarraituko dugu eta balio feministekin egindako eta emakumeek egindako diseinuari buruzko hausnarketa kolektiboa egingo dugu.



Jarduerak bi parte izango ditu:  
Goizean zehar, emakume diseinatzaileen komunitatea eraikitzen jardungo gara, bertan, taldeko kide izan nahi duten guztiak gonbidatuta daude. Eta, ondoren, elkarrekin bazkalduko dugu.

Arratsaldean, ekitaldia publiko orokorrari zabalduko da diseinua eta feminismoa lotzen dituzten proposamen eta adibideak ezagutzeko. Aurkezpen laburrak eta amaierako debatea egingo da. Deialdi honetan hautatutako proiektuetako ordezkariak arratsaldean egingo diren aurkezpenetan parte hartuko dute, 16:00etatik 18:30era. Aurkezpen bakoitzak gehienez zazpi minutuko

iraupena izango du, Pentsa-Kutxa formatuarekin. Ondoren, galdera-sorta eta debatea sortuko da parte-hartzaileekin, eta jardunaldiaren amaiera egingo da.

10:30etik 11:00etara. Kafe batekin lasai itxarongo zaituztegu.

11:00etatik 14:00etara. Lan-saioa: Ekintzara pasako gara! Zertarako? eta Nola?

14:30etik 16:00etara. Elkarrekin bazkalduko dugu!

16:00etatik 18:30era. Pentsa Kutxa: "Diseinua eta Feminismoa Euskal Herrian". Arratsaldeko kafe bat proposatzen dizuegu, proiektu inspiratzaileak entzuten ditugun bitartean.

18:30etan. Zerbait hartuko dugu elkarrekin!



### 3. GAIAK

2022an ospatutako azken topaketan adostu zen bezala: “E-kin, gure lanbideak feminismoetatik babestea eta eraldatzea helburua duen diseinatzaile komunitate bat da”.

Horregatik, komunitatearen harremanak eta ezagutza handitzea bilatzen dugu, Diseinu eta Feminismo kontzeptuak eta bien arteko loturak ikuspuntu desberdinetatik landuko dituzten tokiko jardueren bidez.

Alde batetik, diseinu feministaren inguruan esploratu nahi dugu, hau, balio

feministen bidez mundua eraldatzeko diseinua egiteko modu bat bezala ulertuta (objektuak, produktuak, artea, espazioak, hiriak, zerbitzuak, politika publikoak...).


Beste aldetik, diseinuaren arloan emakumearen egoera profesionalarekin lotutako aurkezpenak ere bilatzen dira. Azterlanak, ikerketak eta abar, baita ekimenak, sareak eta abar ere aurkeztu ahal dira, genero-arazoa lantzeko diseinuarekin zerikusia duten hainbat lanbideetan (mundu mailan edo diziplina eta sektore zehatzekin erlazionatuta).



## 4. NORI ZUZENDUTA DAGO DEIALDIA?

Deialdia Euskal Herrian emakumeek aurkeztutako egungo jarduerari zuzenduta dago. Lurraldearekiko lotura gerta daiteke, bai lurraldeko profesionalak garatzen dituztelako, bai beren jarduera eremua bertan zuzentzen delako (kanpoko profesionalek eginak izan arren).

Ekimen pribatuak, publikoak edo mistoak onartzen dira, eta norbanako zein taldeka garatu ahal dira. Azken 3 urteetan egindako berrikuntza eta gaurkotasuneko proiektuak bilatzen dira.






## 5. EPAIMAHAI A ETA HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Epaimahaia "E-kin, diseinua ahizpatasunez" ekimeneko talde eragileak osatuko du. Jasotako proposamenen artean gehienez 8 proiektu hautatuko dira topaketan zehar aurkezteko; eta honako parametro hauen arabera hautatuko dira:

- Proiektuaren eta topaketaren esparruaren arteko erlazioa.
- Eragin globala eta garatzen den testuingurua.
- Ekimenaren sustapenean eta garapenean parte hartzen duten emakumeen kopurua eta erantzukizun maila.
- Proiektuaren kalitatea, erreplikagarritasuna eta berrikuntza-maila.
- Lankidetzaren eta inplikaturako eragileak.





Gainera, komunitateak Euskal Herrira iristeko duen borondatea dela eta, hautatutako ekimenen nolabaiteko jatorri-aniztasuna bilatuko da. Era berean, diseinuari dagokionez, diziplinen aniztasuna ere bilatuko da.

Topaketan aurkeztuko diren 8 ekimenez gain, aurkeztutako proiektu guztiak, eskatutako baldintzak betetzen badituzte, proiektuaren online argitalpenean jasoko dira.





## 6. IZENA EMATEKO FORMULARIOA

Deialdian parte hartu nahi duten proiektuen ordezkari guztiek izena emateko formularioa bete beharko dute **2023/10/26** eko 23:59ak baino lehen.

**Formulario:**

<https://form.typeform.com/to/XX3R1osj?type-form-source=wikitoki.org>



## 7. DATEN LABURPENEA

Deialdiaren irekiera: 2023ko urriaren 16a

Deialdiaren itxiera: 2023ko urriaren 26a

Epaimahaiaren hautaketaren jakinarazpena: 2023ko azaroaren 2a

Aurkezpenak jasotzeko azken eguna: 2023ko azaroaren 13a


Topaketa eta aurkezpen laburrak: 2023ko azaroaren 18a



## 8. BABES EKONOMIKOA

"E-kin, diseinua ahizpatasunez"-k topaketan zehar aurkezteko hautatutako proiektu bakoitzeko arduradun baten bidaia-gastuak ordainduko ditu. Gainera, 100€ (BEZ barne) emango zaio hautatutako proiektu bakoitzari.

Aurkezpenak formatu presentzian egitea lehenetsiko bada ere, baten bat ezin bada bertaratu, parte-hartzaileei eskatutako zaie online parte hartzea edo aldeztu aurretik grabatutako aurkezpen baten bidez parte hartzea, horretarako, topaketaren antolatzaileen laguntza egongo da.





## 9. HAUTATUTAKO PROIEKTUEN ARGITARATZEA

"E-kin, diseinua ahizpatasunez" ekimenak, proiektuak zabaltzeko asmoz, aurkeztutako lanak argitaratu ahal izango ditu bere hedabideetan (buletinak, webgunea, sare sozialak, kartelak, topaketaren argitalpena...).



## 10. KONTAKTUA ETA INFORMAZIO GEHIAGO

Deialdiari buruzko edozein galdera izanez gero, posta elektronikoko honi idatzi dezakezu:

[ekin.sororidad@gmail.com](mailto:ekin.sororidad@gmail.com)

"E-kin, diseinua ahizpatasunez" ekimenari buruzko informazio gehiago edukitzeko,

hurrengo web-gunean sartu: <https://wikitoki.org/eu/pr/e-kin-diseinua-ahizpatasunez/>